

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Rosario Aztiria Plazaola

*Legazpi,
Gipuzkoa
(1939)*

Aurkibidea



Biografia



Legazpiko Elbarrena auzoko Zalduberry etxean jaioa 1939an. Ama Maxakolakoa zuen, eta aita Bikiñatxikikoa; bost anai-arrebaren artean, bera da neska bakarra. Elbarrena auzoko soroak zeuden lurretan, Bellota lantegiak etxea egin zien lurren trukean. Zazpi urterekin hasi zen plazako eskolan ikasten. Umetatik ama gaixo ezagutu zuen, eta etxeko martxa eramatea berari suertatu zitzaion, etxeko denak mutilak izaki. Joskintza eta sukaldaritza ikastera joaten zen; izan ere, amak, bera faltako zenerako, Rosario ikasita utzi nahi zuen. Batxilerra ikasten hasi zen ama hil ostean, baina etxera bueltatu behar izan zuen hango eginkizunekin jarraitzeko. 32 urterekin ezkondu zen eta hiru seme-alaba izan ditu.

Zintak

LGA-060

- **Proiektua:** Legazpiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Data:** 2010-10-29
- **Iraupena:** 70 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Oruesagasti, Ainitze

Pasarteak

1. Baserrian eginiko ogia eta errazionamendua

- **Erref:** LGA-060/005
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:07:47. **Bukatu:** 00:08:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Astean behin egiten zen aste guztirako ogia. Kaletik errazionamenduko ogia

ekartzen zuten, opil bat bakoitzarentzat, zazpi opil guztira. Rosariok ekartzen zuen ogia kaletik.

2. Josten eta sukaldean ikasten

- **Erref:** LGA-060/007
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:09:09. **Bukatu:** 00:10:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Baserria » Baserriko lanak

Laburpena:

Etxe barruko bizimodua gehiago bizi izan zuen etxetik kanporakoa baino.

Neska bakarra zen anai-arreben artean, eta amak josten eta sukaldean aritzen ikastera bidaltzen zuen. Baserri lanetan gutxi aritzen zen, horretan gehienbat etxeko mutilek jarduten zuten.

3. Eskolan eskulanak, sukaldaritza ikastaroa eskolaz kanpo

- **Erref:** LGA-060/015
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:20:38. **Bukatu:** 00:23:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Betidanik izan du eskulanak egiteko ohitura, "bainikak" eta "festoiak" egiten zituzten eskolan. "Bainikak" izarak egiteko telarekin egiten zituzten eta "festoiak" eskuz, bastidorerik gabe. Sukaldaritza saioen ostean, ikasteko prestatzen zituzten jakiak denen artean zozketatzen zituzten. Guztiak ziren emakumeak.

4. Lutoa gertukoren baten heriotzaren aurrean

- **Erref:** LGA-060/016
- **Iraupena:** 0:03:22. **Hasi:** 00:23:15. **Bukatu:** 00:26:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

<p>Aitona hil zenean urtebeteko lutoa egin zuten, eta bi urtekoa ama hil zenean. Goitik behera beltzez jantzita ibiltzen ziren, eta ez zuten joaterik zinera, dantzan egitera, eta abar. Rosarioren lagun bati ahizpa hil zitzaionez, biak elkartu ziren luto garaian, elkarrekin egoteko.</p>

5. Legazpiko eliza eta elizari lotutako ohiturak

- **Erref:** LGA-060/018
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:27:13. **Bukatu:** 00:29:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Mezara Legazpiko elizara joaten ziren, familia bakoitzak bere txokoa zuen elizan. Ohitura zen igandero meza nagusira joan eta kandela piztea. Apaiza igandero joaten zen "erresponsoa" ematera, eta ordainetan dirua eman behar izaten zitzaion.</p>

6. Hileta elizkizunak

- **Erref:** LGA-060/019
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:29:28. **Bukatu:** 00:32:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

Ama hil zenean bera ez zen joan hileta elizkizunera. Apaiz kopuruaren arabera maila ezberdinetako hileta elizkizunak izaten ziren, Gorpua bizkarrean eraman behar izaten zen kanposantutik elizaraino.

7. Iganderoko mezak

- **Erref:** LGA-060/020
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:32:12. **Bukatu:** 00:33:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

<p>Igandero joaten ziren mezara, zenbaitetan goizeko sei eta erdietarako mezara ere bai. Mariatarren kongregazioko kide izan zen.</p>

8. Mariatarren kongregazioa eta apaiz-laguntzea

- **Erref:** LGA-060/021
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:33:06. **Bukatu:** 00:35:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Uste du 14 urtetik gorakoak sartzen zirela Mariatarren kongregazioan. Hilero kongregazioaren eguna ospatzen zen eta jauna hartzera joan behar izaten zuten denek. Norbait hilzorian baldin bazegoen, apaizari lagundu behar izaten zioten haren bizilekura, bidean otoitzean aritzen zirelarik.</p>

9. "Bulak" eroatera bikarioaren etxera

- **Erref:** LGA-060/022
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:35:15. **Bukatu:** 00:36:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna

Laburpena:

Ostiraletan ezin izaten zen haragirik jan urte osoan zehar, baina sakrifizioa garizuma garaira murrizteko, bikarioaren etxera joaten ziren txarteltxo batzuek eroatera, "bulak" deitzen zieten.

10. Neba arreben arteko desberdintasunak etxean

- **Erref:** LGA-060/028
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:49:01. **Bukatu:** 00:52:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Etxeko giroan eragin handia izan zuen Rosario neska bakarra izateak senideen artean, haiek eguerdian lanetik etortzen zirenerako bazkaria mahai gainean izaten zuten, eta gero ezta jaso behar zenik ere. Mutilek ekartzen zuten zutenez jorjala etxera, haien menpe zeuden etxeko emakumeak.

11. Ikasketak eta lana

- **Erref:** LGA-060/029
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:52:18. **Bukatu:** 00:54:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Amari ilusioa egiten zion Rosariok zerbait ikasteak, ama hil ostean ikasten hasi zen baina etxeko lanak eta ikasketak bateratu ezinda, utzi egin behar izan zuen. Senideak lantegiko eskola profesionalera joaten ziren arratsaldeetan, goiza lanean pasa ostean.

12. Neskak neskame

- **Erref:** LGA-060/030
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:54:03. **Bukatu:** 00:54:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Garai hartan orokorrean neskak neskame joaten ziren, goi-mailako ikasketak, izatekotan, familia dirudunetako seme-alabek izaten zituzten.

13. Bizi-baldintzak: lana, osasuna...

- **Erref:** LGA-060/033
- **Iraupena:** 0:03:41. **Hasi:** 01:00:14. **Bukatu:** 01:03:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuek eta sasimedikuek
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

Garraibide gutxi zegoen, alde batetik bestera oinez ibiltzen ziren ia beti. Lantegian gizarte segurantzarik ez zuten langile askok eta askok, herriko medikuarengana joaten ziren eta askotan medikua bera joaten zen etxeetara. Botikak ordaindu egin behar izaten zituzten botikan, errejeta orde, papertxo batean apuntatuta eramaten zuten botikaren izena.

14. Apaiz eta medikuari berorika, lagun bati hika eta irakasleari "de usted"

- **Erref:** LGA-060/034
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 01:03:55. **Bukatu:** 01:06:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Tratamenduak » Berorika
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Apaizari eta medikuari berorika egiten zieten. Irakasleari gazteleraz, eta lagun artean ez zuten hiketarako joera handirik, nahiz eta lagun batekin hika aritu. Tolosaldeko euskara gustatzen zaio gehien.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com